

# Zebarri

*Etxebarriko Udal Euskaltegiko Ikasleek egina*

*1999ko ekaina*

**KONTSUMITZAILEEN  
UDAL BULEGOA**

**EUSKARA ASTEA 99**

**SAN ANTONION  
SURFEAN**

**LIBURUAK**

**ZINEMA**

**PAGASARRI**

**NATURGUNEAK**

**ETXEBARRI  
HANKAZ GORA**

**INKESTA**

**DISKAK**

**ETXEBARRIKO  
IHAUTERIAK**

**ETXEBARRIKO**

## **UDAL EUSKALTEGIA**

Uztaila/iraila  
Julio/Septiembre

**MINTZAMEN IKASTAROA  
BIZKAIERA IKASTAROA**

Uztailerako matrikula ekainaren 30 arte  
Matricula para Julio hasta el 30 de Junio

**CURSOS DE VERANO**


Iraila/Septiembre  
DBH eta BBBko ikasleentzat  
**EUSKARA HOBETZEKO  
IKASTAROA**

Alumnos de E.S.O. y B.U.P.  
Refuerzo del euskera

Irailerako matrikula uztailaren 15 arte  
Matricula para Septiembre hasta el 15 de Julio

**UDAKO IKASTAROAK**  
Tlf. 94 440 77 69

UDAL EUSKALTEGIA



UDAL EUSKALTEGIA

# INKESTA

Zure ustez zer egin ahal da eskola zaharren lokaletan?



**ELVIRA MAESE**  
Ikaslea

Nire iritziz ideia ona izango litzateke kultur etxe bat egitea. Horrela Etxebarritarrok probetxua aterako genuke.



**ANA BLANCO**  
Langilea

Hain leku onean dagoenez gauzaren bat pentsatu behar da. Oso lokal egokiak dira gazteentzako eta kurtsuak egiteko langabeentzat...



**LEIRE SANDONIS**  
Ikaslea

Jende gaztearentzat zeozer egin behar da hor. Gazteentzat ez dago lekurik eta hor aktibitateak eta zinema bat egin daitezke. Umeentzako ludoteka ere egin ahal da.



**JOSE ATUTXA**  
Jubilatua

Umeentzako zeozer, zinema edo entretenitzeko zeozer. Osterantzean zer?.




**LOURDES BIZKARGUENAGA**  
Tabernaria

Etxe hori hutsik dago eta umek ez dute nora joan. Bekosolo pixka bat urrun dago eta plazan ez dago leku nahikorik eurentzat. Lokal horietan zinema eta kultur zentru bat egin daitezke umeentzat.



**JESUS M.ª LLONA**  
Abadea

Garai ona izan daiteke Elizako lokaletatik pasatu izan diren hainbat talderentzat (musika taldeak, gazteentzako tailerrak). Izan ere momentu honetan elizan ez dago lekurik holako gauzak sartzeko.



**HARITZ CANTO**  
Ikaslea

Nik uste polikiroldegi bat egin ahal dela. San Antonion badago bat baina hemen ez dago kirola egiteko instalazio nahikorik.

**MARISA BILBAO**  
Jatetxe zaindaria

Uste dut lokal horietan emakume eta gazteentzat gauza eta ekintzak egin ahal direla. Ludoteka bat ere bai.

**MAITE GIL**  
Barandiaran  
ikastetxeko zuzendaria

Nire ustez gauza kulturaletarako erabili behar litzateke: emakumearen garapenerako ekintzak eta asteburuetan gazteentzako.

**BEATRIZ ORENAGA**  
Dendaria

Nik uste dut Kultur etxe bat, jendeak denbora pasatzeko, zinema txiki bat eta antzerkia ere bai.

**MADALEN MUELA**  
Jatetxe zaindaria

Idea ona litzateke gazte eta emakumeentzat erabiltzea. Eta baita ludoteka bat egitea ere.

**PATXI GONZALEZ**  
Auzokoa

Urte batzuk barru metroarekin Etxebarri asko handituko da eta orduan Bekosolo-urrun geratuko da. Nik lokal horietan haur eta gazteentzat lokalak eta zinema eta liburutegia ipiniko nituzke.

# GUSTOKO LEKUAN... ALDAPARIK EZ

Berriz ere Etxebarri aste batez euskararen koloreekin jantziko da. Dagoeneko geure Etxebarriko euskara asteak lau urte bete ditu eta herri osoak, prestatutako ekintzetan ospatu egingo du. Baina, zer dago honen atzean? Nor arduratzen da egitarau osoa behar den bezala egiteaz? Hauen eta beste galdera batzuen erantzunak ematen ahaleginduko naiz.



Aldez aurretik, antolakuntza taldetik argi utzi nahi dugu aste berezi hau herri osoari zuzenduta dagoela, jende guztia euskerarekin erlaziona dadin. Beraz, batzuk oker daude aste hau eskoletako umeentzat eta euskera ikasten ari direnentzat eginda dagoela pentsatzean.

Eta jende guztiak parte har dezan nahi dugunez denon iritziak eta gustuak kontutan hartu behar izan ditugu. Horretarako, Etxebarriko elkarte, talde eta erakunde batzuk elkartu gara ahalik eta jende gehienen ideiak jakiteko. Honela, prestatutako ekintza desberdinak balagarriak izango dira, batzuk umeentzat, beste batzuk

gazteentzat eta helduentzat azkenik.

### Lekuarekiko buruhaustekak.

Nahiko zaila da jende guztiaren nahiak asetzea, batez ere gurea bezalako herri batean bizi garenean. Zoritxarrez herri hau lau zatitan dago banatuta: Boketea, udaletxearen ingurua, Etorbidea, eta San Antonio. Hau gutxi balitz errepide bat eta aldapatxo bat gehitu behar zaizkio. Eta ez pentsa ez, lekuarekiko buruhausterik izan ez dugunik. Sentitzen dugu norbaitek gustoko dituen aktibitateak herriaren beste puntuan jarri baditugu baina ekintza

bakoitza bere lekurik egokienean kokatzen saiatu gara.

### Diru-iturri batzuk bilatu behar izan ditugu.

Dudarik gabe aste hau aurrera eramateko arazorik handiena ekonomikoa izan da. Gai honetaz kexa bat daukat: Herriarentzako aste kultural bat udaletxeak ordaindu beharko luke eta gure kasuan diru laguntza bat besterik ez dute eman eta gainera aktibitate batzuk egiteko oztopoak jarri dizkigute.

Nahiko saltzaile txarra naiz baina argi dago gure kamisetak oso politak eta kalitatezkoak direla, beraz ez erosi kopiarik, benetakoak baizik!

Txantxak aparte utzita, herrian aurki ditzakegun enpresa batzuek ere laguntza eskeini digute eta zeintzuk diren jakin nahi baduzue aktibitateen egitaraura jo baino ez duzue egin behar. Antolakuntzaren partetik eta berriz ere eskerrik beroenak guregan eta gure egitasmoan konfidantza jarri duten enpresei.

### Ez dadila aste bakar bat.

Oraindik ez dudala aipatu zein den gure egitasmoa edo xedea? Pixkanaka-pixkanaka

euskera gure eguneroko bizitza eta ekintza guztietara ailegatzea espero dugu eta aste hau aurrera egiteko pausu bat izatea zaila eta neketsua den bide horretan. Beraz, ez dadila izan aste bakar bakarra nahi dugu eta hamabost (edo gutxiago ahal bada) urte barru "Etxebarriko euskara astea" havek zertarako balio izan zuten gogoratu baino ez dugu egin nahi. Gure herria euskaldun bihurtuko da eta urteotan ateratako argazkiak harro begiratuko ditugu seme-alaben artean.

### Lan gogorak fruitua eman behar du.

Amets egiteari utziko diot eta idatzita dagoen etorkizunetik bueltatuko naiz zenbat lan dakarren

euskara aste batek gogoratzeko. Bilerek, faxek, telefonoek, gutunek, elkarrizketek eta gainontzeko gauza guztiek zerbaitetarako balioko dutelakoan gaude. Hala ere, pausurik garrantzitsuena, artikulua hau irakurtzen ari zaren horri dagokizu, beraz parte har ezazu ahalik eta aktibitate gehienetan. Argi dago laguntza handia behar dugula gure xedea betetzeko baina zorionez zuek zaituztegu eta ez garela damutuko ziur gaude.


Gure lanak, lan gogorak bere fruitua eman behar du eta gure nahiak beteko diren esperantzaz jo ta ke lan egingo dugu saririk jaso gabe geure buruan atsotitz hau daramagula: Gustoko lekuan.. aldaparik ez.

**Eduardo Castillo**

## IRUDIZ - IRUDI



Txalaparta jotzen ikasteko aukera izan genuen.



Euskal kultura, azokan ere zabaldu genuen.



Etxebarriko dantza eta musika taldeek alaitu zuten euskal produktuen azoka eguna.




Taloa ondo egitea zein zaila den konturatu ginen.




Euskaltegian Etxebarriko euskarari buruzko hitzaldia entzun ahal izan genuen.



Eskulanintzan hainbat gauza izan ziren erakusgai.



Umeek eta ez hain umeek txalapartaz gozatzeko aukera paregabea izan zuten.



Makailo eta tortila lehiaketan epaileek izan zuten hitza.

## ETXEBARRI HANKAZ GORA

*Gure herria sufritzen ari den aldaketen ondorioz, interesgarria iruditu zaigu udaletxera joatea informazio bila posible den neurrian gero zuek informatzeko. Etxebarriko Udalean alkate-orde eta hirigintza eta ingurugiro zinegotzia den Fidel Collado-ri honako galdera hauek egin dizkiogu.*

### **Zeintzuk dira herrian egiten ari diren obrak?**

Hainbat. Adibidez, Egetiaga Uribarri eta Santa Ana kaleak, oinezko egiten ari dira, Kukullagako plan partziala bukatzen ari da, Extremadura eta Asturias kaleetan erreformak egiten ari dira, San Antonioko ambulategiaren aurrean dagoen enparantza bezala.

Honetarako zubien artean dauden hutsuneak bete beharko dira, hau egiteko 25 milioi erabiliko direlarik. 2.Asfaltatu egingo da San Esteban Sabino Aranarekin batera La Frontera tabernara arte. Amezola eta Barrondo ere asfaltatu egingo dira, azken honetan egiten ari diren pisuak amaitu eta gero.

### **Zein da lan hauen guztien helburua?**

Hirigintzari dagokionez herria hobetzea eta bizitza kalitatea ere hobetzea.

### **Noiz arte iraungo dute lanek?**

Dena ia ia dena martxan dago. Ikus daitekeenez Egetiaga Uribarri martxan dago. Gutxi gora behera bi hilabete iraungo du bakoitzak.

### **Zeintzuk dira proiektuan dauden obrak?**

Hurbilenak bi dira:

1.San Esteban Elizaren aurrean enparantza berri bat egingo da.



## ETXEBARRI HANKAZ GORA

### **Zer nolako asmoa duzue eskola zaharrentzako (Txiki Otaegi plaza aurrean dagoen edifizioa) ?**

Ezer ez. Guk aldaketa bat egin nahi izan genuen. Hezkuntza Delegazioarena denez, eskolaren truke Bekosolo parkean dagoen txalet bat eman, zehazki txalet berdea, baina Delegazioak ez zuen onartu. Hori bai, posible izango balitz, gustatuko litzaziguke kulturarekin erlazionaturiko zerbait egitea. **Egia da futbol zelai berriaren ondoan egingo direla beste kirol instalazioak?**

Haseran lurrak erosi ziren futbol zelaiatz gain beste gauzaren bat egiteko, segun eta zelako eskaera zegoen ( saskibaloizelaia, tenis pista)

### **Zer esan diezagukezu jarri nahi duten Eroski-ri buruz?**

Eroski trafikoaentzako alternatiba berri bat aurkeztu arte eta aukera hori gustoko izan arte ez da egingo. Hau da, kotxeek herritik pasatu behar badute, ez da egingo.

### **Herritik hurbilago dagoen sarrerarik egingo zaio Bekosolo parkeari?**

Sarbide posible batzuk pentsatu dira. Alde batetik, San Esteban Etorbidea Santa Anarekin lotuta, baina bertan behera geratu zen garestiegia zelako. Beste alde batetik Bekosolotik aurrera, "La Kimika" aldera egingo diren etxeak (gehienez bi pisu dituztenak) amaitu eta gero, handi sarrera bat egin daiteke, herriarekin lotuz.



### AURREKONTUAK

LANAK	ZENBAT BALIO DUEN
PP Kukullagako hiritarpen gastuak	129.928.805 pzta
Ur saneamendu sareen lana	10.657.282 pzta
98ko Planaren Ur saneamendu sareen lana	5.095.123 pzta
Santa Marina kaleko moldaketa	4.992.030 pzta
Galizia kaleko moldaketa	4.998.918 pzta
Udal igerilekuen hobekuntza gehigarrien lana	3.711.178 pzta
Egetiaga Uribarri eta Santa Ana kaleetako aldaketen lana	7.863.990 pzta
Extremadura kaleko aldaketen lana	2.719.611 pzta
Lezama Legizamon kaleko aparkalekua	653.068 pzta
634EN-eko zaldainaren zoladura	2.202.732 pzta
Asturias kaleko aldaketen lana	2.373.873 pzta
Nafar kaleko enparantzaren zoladuraren konponketa	373.214 pzta.

## KONTSUMITZAILEEN UDAL BULEGOA

**Noiz zabaldu zen bulego hau Etxebarrin?**  
Duela 10 urte inguru zabaldu zen.

**Jendea zertarako etortzen da?**  
Kontsumoarekin zerikusia duten edozein gauza galdetzera etortzen da. Normalean kontsultak eta salaketak egiten dituzte.

**Norentzat da bulego hau?**  
Etxebarritar guztientzat. Hori bai, kontsumitzaileentzako bulegoa da, ez enpresari edo bestelakoentzat.

**Zein izaten da arazoak konpontzeko jarraitzen den bidea?**

Lehenengo bezeroaren datuak jasotzen ditut eta eskabidea betetzen dut. Gero, kasuaren arabera tramiteak desberdinak izaten dira.

**Herritarrek asko erabiltzen al dute zerbitzu hau?**

Bai, gero eta gehiago erabiltzen da, izan ere udal-zerbitzua da. Jendeak gero eta informazio gehiago eskatzen du eta horrek guretzat gero eta lan handiagoa suposatzen du.

**Zein arazo mota konpontzen duzue?**  
Beno, konpontzen saiatzen gara. Hala ere, errezagoa da kontsultak atenditzea eta informazioa ematea salaketak egitea baino.

**Zeintzuk dira jendeak hona ekartzen dizkizun arazo normalenak?**

Gaur egun babes ofizialeko etxebizitzetara buruzko informazioa, elikadura, bankuak, bidaiak eta aseguruak izaten dira. Bezero askok Aseguruaren kontrako salaketak jartzen dituzte, polizetan informazioa argia ez delako etabar.



Idoia Garcia Lupardo  
KIUB-eko langilea

## SAN ANTONION ERE SURFEAN

Javier Diez, San Antonioko gaztea dugu. Entzun dugunez, asko gustatzen zaio surfa egitea eta gai horretaz hitzegiteko zita egin dugu berarekin kirol honi buruz eta berari buruz zertxobait gehiago jakin ahal izateko.

**-Javi, zenbat urterekin hasi zinen kirol honetan?**  
13 urte nituenean

**-Eta nola hasi zinen, zeure kabuz ala beste norbaiten eraginez?**

Ez. Ez zen inoren eraginik egon. Neu bakarrik hasi nintzen, asko gustatzen baitzitzaidan kirol hau

**-Familian beste inork badu surfarekiko zaletasunik?**  
Bai, nire anaia zaharrena ere aritzen da olatu artean.

**-Zenbatero praktikatzen duzu?**

Egunean ordu bi eta erdiz edo aritzen naiz normalean, eta gehienetan Sopelako hondartzan.

**-Ez al da gehiegi egunean hainbeste denbora horretan ematea?**

Ezta gutxiago ere. Nola izango da ba gehiegi, gustora zaudenean!

**-Posible al da orduan bizitza arrunta eta surfa uztartzea?**

Bai, goizez ikasten dudanez, arratsaldeak kirolari eskeintzen dizkiot

**-Aizu, eta zer sentitzen da surf taula gainean?**  
Neure buruarekin oso ondo sentitzen naiz, errealizatuta erabat eta beste guztia ahaztu egiten zait erabat.

**-Zein leku du surfak zure bizitzan?**

Ba, esan dizut, neure buruarekin ondo sentitzeko tresna



da. Nire bizitza da. Guztiz beharrezkoa, jatea edo edatea bezain garrantzitsua.

**-Zeintzuk dira gustokoen dituzun hondartzak?**  
Niri neuri, Mundaka eta Miarrizteko hondartza atsegin zaizkit

**-Entzun dugu txapelketetan ere parte hartzen duzula.**  
Bai, Euskal Herriko zirkuitoan, Kantabriakoan eta Ballantine-ren txapelketetan aritu izan naiz.

**-Denboraldi honetarako helbururik?**

Bai, arestian aipaturiko txapelketetan parte hartzea eta Euskal Herriko hamar onenen artean sartzea lortzen badut, nire asmoak beteak izango dira.

**-Tituluak ere izango dituzu ba.**

Azkena Interclub Bakio 97 irabazi nuenean eskuratu nuen

**-Erretiroan eta pentsatu duzu inoiz?**

Printzipioz gorputzak aguantatu bitartean honetan jarraituko dut. Baina txapelketetan parte hartzeko muga 30 urtetan dago.

**-Beste kirolrik egiten duzu?**

Tira, snowboard eta tenisean ere aritzen naiz noizbehinka

**-Animatuko al zenuke jendea kirol hau praktikatzeko?**  
Hondartzak surflariz beterik daude lehen ere eta askotan gure arteko giroa ez da behar bezain ona izaten, Baina ez dut uste nik esandakoak inor animatu edo atzera bota dezakeenik.



Etxebarriko Naturguneak zeintzuk diren kontatuko dizuegu. Bekosolo Parkeko zuhaitz eta zuhaixka motekin hasiko gara eta ondoren Nerbioiko flora eta faunarekin jarraituko dugu. Eta dugun kutsadura? Horrentzat ere lekua izango da gure txoko honetan.

## BEKOSOLO PARKEKO BERDEGUNA

Etxebarriko Bekosolo Parkea oso berdegune interesgarria dugu. Etxebarriko alde honetan zuhaitz eta zuhaixka mota desberdinak aurki daitezke. Batzuk bertakoak dira, adibidez: urkia, pagoa, haritza, artea, txorimahatsa, eta abar. Urrutikoak ere badaude, esate baterako: Indietako gaztainondoa, magnolioa, palmondoa, amodioaren zuhaitza. Ez zenekiela horrelakorik? Ba azkena izango zara, zeren eta txoriek ere ondo dakite zer nolako arbolak dauden. Ez da arraroa bertan tortola entzutea, edo argioilarra ikustea. Eta badago kukua entzun duen jendea ere. Bidaide kultur elkarteak liburu bat argitaratuta dauka Bekosoloko zuhaitz eta zuhaixka mota guztiekin. Liburuxka hau Bekosolo

liburutegian dago, ikasi edo interesatuta bazaudete.

## ETXEBARRIKO NERBIOI ARROA

Gizakiak Nerbioi arroa ikaragarri aldatu du. Ibaiaren alde altuenetan landaredia desagertu dela esan daiteke, nekazaritza eta abeltzaintzagatik ibai ertzean ortu eta landak egin dituztelako. Nerbioi arroa ondoan kimika eta metal industria asko daude. Ura oso kutsatuta dago eta fauna gutxi dago.

Nerbioiko landaredia eta fauna ez da ugaria, baina ez da eskas- eskasa ere.

Landareen artean hauek ditugu: kainabera, San Antonio belarra, ira, eta abar.

Fauna hau da: aingira, loina, zamo, zaparda, sugea, sapoa, igela, ezaina, izpaia, eltxoa,

papardoa, koleopteroa, eta abar.

## NERBIOIKO KUTSADURA

Nerbioi ibaia gaur egun oso kutsatuta dago, inguruan dauden lantegiengatik. Etxebarriko dagoen Aceralia lantegia, lehen Bizkaiko Labe Garaiak zena, konponbidea emateko ahalegina egiten ari da. Araztegi bat ipini du. Araztegi honek errefrigerazio makinatik irteten den ura olioarekin garbitzen du eta berriro erabiltzen du.

## NERBIOIKO PROIEKTUA

Une honetan, Etxebarriko "Nerbioi-lbaizabal" interzeptorea eraikitzen hasi da.

2001eko Apirilean bukatuko da eta egitasmo honekin Etxebarriko ur kutsatuak ez dira Nerbioira isuriko, Galindoko Araztegiara baizik.




## PAGASARRI

---

Ni Pagasarri nauzu, eta ez nago Etxebarritik urrun. Etxebarriko udal euskaltegiko ikasle batzuk ni bisitatzea erabaki zuten duela gutxi eta izugarri poztu nintzen.

Nire gailurretik Gorbeia eta Durangaldeko mendiak ikusiko dituzue: Pastorekorta (592 m.), Ganeta (689 m.), Ganekogorta (999 m.).

1959an izugarrizko sustoa hartu nuen, izan ere, burugabeko proiektua egin nahi izan zuten nire lurretan. Teleferikoa jarri nahi zuten turistentzat eta gune turistikoa sortu. Zorionez, ez zuten egin.



Udaberriko goiz fresko hartan Etxebarriko plazatik irten ginen Boluetarantz abiatzeko. Zubialde auzoan ezkerretara jo genuen eta Montefuerte Parkea zeharkatu genuen. Ollarganeko futbol-zelaitik hurbil dagoen ubidea gurutzatu genuen eta autobidearen azpitik doan tuneletik pasatu ginen. Laster Bolintxu erreka agertu zitzaigun zuhaitz artean; haltzak, aritz amerikarrak. Ugariak dira. Zoritxarrez gorago pinudiak hasten dira eta jatorrizko zuhaitzak desagertu. Urtegi txiki batetik pasatu ondoren, Bilbotik datorren bidearekin egin genuen topo eta goranzko pista jarraitu genuen, honek zuzen eraman gintuen Pagasarri gailurreraino.

Nire barruan baditut hainbat interesgune, elurtzuloak adibidez. Lau putzu biribil dira 5 eta 8 metrokoak. Baditut hainbat ibilbide ekologiko eta ezin ahaztu nola gozaten duten eskaladazaleek nire hegoaldeko hormetan! Egarrri zarenontzat iturri ugari dago, baita aterpe ederra goialdeko zelaietan.

Goza itzazue nire txoko eta inguru zoragarriak, baina, hori bail Errespeta ezazue nire bizitza, ondo zaintzen banauzue Pagasarri osasuntsua izango dugu guztiok.

## ZINEA



"La vida es bella"

**ZUZENDARIA:** Roberto Benigni  
**AKTOREAK:** Roberto Benigni, Nicoletta Braschi, Giorgio Cantarini

Filme honek 3 oskar lortu ditu (aktore onenari, filme atzerritar onenari eta musika onenari).

**ARGUDIOA:** Bigarren Gerra Handiari buruz da filmea. Protagonistak gizon bat eta bere semetxoa dira, eta gaia kontzentrazio zelaietan ematen dituzten egunak. Aktore nagusiak gerra jolas bezala hartzen du bere semea salbatzeko.

**IRITZIA:** Filme honek komedia tonoa izan arren momentu batzuetan oso gogorra da bertan ikusten denagatik (gizonak jakin badaki gerran dagoela eta ez dela barre egitekoa, baina semearengan pentsatu behar du eta horrexegatik hartzen du gerra jolas bezala, semeak ilusioa ez dezan galdu eta itxaropena berriztu dezan)

**PUNTUAZIOA:** 10etik 8

## LIBURUA



"Ostegunak"

**IDAZLEA:** Jon Arretxe (basauritarra)

**ARGUDIOA:** Liburu honetan bost istorio agertzen dira. Istorio bakoitzean pertsona desberdinak dira, baina liburu osoaren gaia bat da: ostegunak. Gehienoi ostegunak egun arruntak iruditzen zaizkigu, liburu honetan agertzen diren ikasleei izan ezik. Haien ostegunak larunbata bezalakoa dira eta gogo handiarekin espero dute osteguna izatea.

**IRITZIA:** Liburua barregarria da, Gaztea bazara eta gainera unibertsitatean bazaude gustatuko zaizu. Unibertsitatean ez bazaude ere, gustatuko zaizu pertsonaien izakeraz identifikatua senti zaitezke eta.

**PUNTUAZIOA:** 10etik 8.

## DISKA




Oskorri & the pub ibiltaria 3

**TALDEA:** Oskorri

Izenburu honekin Oskorri hiru diska atera ditu (1996,97,98). Hirurak Santo Tomas egunean grabatuta daude. Joan diren Gabonetan hirugarren diska grabatu zen, Bilboko Hareatzan, bertan zegoen jendeak ere parte hartu zuelarik. Kanta guztiak dira herrikoiak eta entzutean kantatzera animatzen gaitu, Oskorriren ahotsa ezezik bertan zegoen jendearen ahotsa ere bizian entzun dezakegulako. Gainera, abestien hitzak edo doinuak ez badakizkigu liburuxkan ditugu hitzak eta partiturak. Markoxen txarrix, Haika mutil, Aitorren hizkuntza zaharra, eta beste kanta ezagun asko aurki ditzakezu diska entzungarri eta kantagarri honetan.

**PUNTUAZIOA:** 10etik 9


# ETXEBARRIKO IHAUTERIAK EUSKAL-HERRIKO IHAUTERIAK



IHAUTERI, INAUTERI, ARATUZTE, KARNABAL, ZANPATZAR...  
MODU ASKOTARA DEITUAK IZAN DIRA MOZORROZ,  
DANTZAZ, MUSIKAZ BETERIKO EGUN HAUEK.  
EUSKAL-HERRIKO HERRI ASKOTAN OSPATZEN DIREN  
EGUNAK DIRA, ABENDUAREN HASI ETA MARTXORARTE.

Hasieran, gaur egun udaberria den garaian ospatzen ziren ihauteriak. Garai hartan hasten zen urte berria, eta ez orain bezala urtarrilean. Horrela urte zaharra bukatu eta berria hastea ospatzen zen jai hauekin: Olentzero, Miel Otxin, Zanpatzar... eta beste hainbat pertsonaia erre egiten ziren. Urte zaharraren kutsadura kendu egin behar baitzen garbitu, eta modu horretara egiten zuten hainbat pertsonaia errez. Erdi aroan eleizak ihauteriei zentzua aldatu egin zien, eta ihauteriak garizumaren aurrera pasa zituen. Etxebarrin, gure gurasoak aiton amon jantzirik, maskara batekin eta txerriaren heste bati makila batzuekin jotzen zuten. Orduan umeez esaten zieten: "Mascarita que te conozco", eta korrika hasten ziren mozorroturik zeudenak bere atzetik joaten zirelako. Azken bi urte hauetan Ostots taldeak antolatzen ditu ihauteriak ondo pasatzeko eta tradizioa errekuaratzeko.

## DANTZAREN LAGUN IKUSTEZINA



Etxebarriko ihauterietan herriko musikak erabiltzen dira. Gehien erabiltzen diren instrumentuak: txistua, danbolina, alboka, txalaparta, akordeoia, bonboa eta txalaparta dira. Gure herrian neskek eta mutilek parte hartzen dute. Gutxi gorabehera hamabost dira musika jotzen dutenak. Soinuvaldeko musikariek Soinuvaldeko elkarteetan ensaiatzen dute eta Ostokoek Bizkaian zehar. Astean birritan ensaiatzen dute, gero ihauteriak etortzen direnean hobeto jotzeko. Txistulariek hogeitau baina gehiago daramatzate jotzen eta Barandiaran ikastetxeko jantokian biltzen dira ensaiatzeko. Beraiek asko eta asko ensaiatzen dute guri alaitzeko eta beraiekin gozatzeko.

## OINAK MUGITU

Etxebarriko ihauterietan herriko eta Euskal Herriko dantzak aurkezten dituzte.

Badakizue dantza ondo ateratzeko esfortu egin behar dugula eta horrela dantzak polita ateratzen dira. Guri dantza batzuk asko kostatzen zaigu, beste batzuk berriz, ez hainbeste baina oso pozik gaude eta horrela segi nahi dugu. Esan zigun gure informatzaileak.

Urtero-urtero dantza desberdinak dira, jendeari ezagutarazteko eta ondo pasatzeko. Haien artean aipa ditzakegu:

**Zaragi dantza:** Markinako dantza da. Mozorro eta dantzariak non hartza eta bere trebatzaile nabarmentzen diren. Zaragi dantza dabilta bere makilekin erritmo biziz zaragi bat jotzen dutela.

**Sorgin dantza:** Gipuzkoako dantza da. Dantzariak gizonezkoak beti, bi lerro osatzen dituzte eta lerro batekoa neskez jantzen dira. Soineko saitsa honetan kapitainaren agindupean izango duten jarraibidea dantzaren muina izango da.

**Sagar dantza:** Baztango dantza da, hain ugaria eta goxoa den sagarrari omenaldian. Lau dantzari zuriz jantzita, itoltza orriarekin, buruan anitzeko zinta duen kapela eta eskuetan sagar bana daramatela, dantza egiten dute.

Honetaz gain, beste dantza batzuek aipatu behar ditugu: Altsasuko momoxorroa, Gernikako oilo jokoa, Zuberoko maskarada, Gernikako aurrezkoa, Baztango zortzikoa, Arantzazuko mutil dantza, Iparraldeko bizardantza, muxiko Askain, hegi eta ostalдарreko dantza, jotak, arin-arin eta biribilketak.



## AILEGATU DA MOZORROEN EGUNA

Etxebarriko ihauterietan mozorro asko agertzen dira:

Hartza, txatxoak, diganteak, domulagunak, sorginak, pailasoak, ezkontideak, mamoxorroak etabar. Mozorro hauetako hartzarena ikusgarriena da. Hartza Arizkungoa da eta ihauterietako pertsonaia nagusia da. Gizon eda mutilen batek egiten du hartzarena, gorputz guztia artilez estalita. Batera eta bestera mugitzen da hartza, ihes egin eta jendea izutzen du. Artzainak darama lotuta, bere ondoan mantentzea asko kostatzen bazaio ere. Taktet handia darama eskuan zaintzaileak, hartza dominatzen laguntzeko.

Agertzen den beste mozorro bat mamoxorroa da:

Mamoxorroak Unanuakoak dira. Haiek kareta gorri daukate, moduko makila daramate eskuan bi metro eta erdikoa izaten da berorren luzera. Ez dezagun ahaztu momozorroek beso zein aurrekaldetik haraiketuz berri den animalia baten odolez zipristindutako ohialak daramatzatela. Batera eta bestera ibiltzen dira mamoxorroak, beti harrapakin baten bila. Ume edo neskatilen bat ikusiz gero korrika abiatzen dira ea harrapatzen duten.

Ez dugu ahaztuko Ziripot:


Ziripot Lantz herrikoa da, zaldikok ostikaturik maiz erortzen dena. Txatxoak Ziripot lagundu eta zaldiko lekutzen saiitzen dira.



## BERTOKO ETA KANPOKO TALDEAK

Azken ihauterietan bost taldek parte hartu zuten, haiek ziren: Ostots, Soñualde, Santutxuko Gaztedi eta Basauriko Agintzari jendeari dantzak berriak ezagutarazteko eta alaitzeko. "Taldeak gero eta hobeto dantzatzen dutela". zioen gure informatzaileak. Talde bakoitzean jende asko dago, baina ez dago jende kopuru berdina, izan daiteke hiru edo hogeit. Taldeetan gehienak neska eta mutilak dira, eta gainera gazteak.

Orain dela bi urte, Ostots taldekideek ihauteriak errekuperatzeko Arizkungo dantzak, musikak eta mozorroak erakutsi zizkiguten. Gaur egun, Ostots taldekideak prestatzen ari dira hurrengo urteko ihauteriak, horretarako dantzak ikasten dituzte eta jadanik mozorroak prestatzen ari dira.



Egileak: Etxebarriko Barandiarango 4. mailakoak  
Data: 1999ko martxoaren 23an

**1999ko UDAKO  
EUSKARA IKASTAROAK  
CURSOS DE VERANO 1999**

**Eskaintza**

- MINTZAMENA lantzeko ikastaroa.  
Uztailaren 1etik 16ra.
- BIZKAIERA ikastaroa.  
Uztaila/Irala

Beste ikastaro batzuei buruz galdetu  
Euskaltegian.

**Matrikulatzeko epea**

Ekainaren 14tik 30era.

• • •

**Oferta**

- Curso de perfeccionamiento oral.  
Del 1 al 16 de Julio.
- Curso de BIZKAIERA  
Julio/Septiembre.

Preguntar en el Euskalategi por otro tipo de  
cursos.

**Plazo de matriculación**

Del 14 al 30 de junio.



**ETXEBARRIKO  
UDAL EUSKALTEGIA**

Bekosolo Parkea z/g. • 48450 ETXEBARRI  
Tel./Faxa: 94 440 77 69  
Posta elektronikoa: [etxebarri@bezeroak.euskaltel.es](mailto:etxebarri@bezeroak.euskaltel.es)

Udako Ikastaroak / Barnetegiak

# UDAL EUSKALTEGIAK

OPORRETAN  
ERE ZABALIK



ABIERTO POR  
VACACIONES

Cursos de Verano / Internados

HABERAN dirulaguntzaz.

UDAL  
EUSKALTEGIAK



Amorebieta-Etxano • Arrigorriaga • Basauri  
Durango • Erandio • Ermua • Etxebarri  
Galdakao • Gernika • Gueñes • Laudio  
Leioa • Mungia • Muskiz • Santurtzi • Sopela  
Trapagaran • Txorierra • Ugao • Zalla



**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa